

MARIA BIRJIÑAREN AMATASUNA

1. Gaurko teologiak, au da, kristau fedearen pentsamenak, bere eginkizun bearrenetariko bat bere esentziara biurtzea dau, eta orrela gaurko munduan (gaurko pentsakizun, balorapen, sentipen, giza-bearrizanean) bere benetako, asikerako, mezu barrira aurkeztca. «Asikera» eta «biurtze» berbak ez dire historizismo eran ulertzekoak: esate baterako, gizaldietako pentsakerak kenduz ta garbituz, Alkartasun Barriko textoean aurkitzen doguna, eta an be leenengo kristau adierazpenen esaldi materialak barrira eta aldatzekc esan eta esatea. Olako zer edo zer be egin bearrekoa da, eta egiten da. Asikerara eta esentziara biurtze ori ez da literala eta historizista: geroko eta leenengo fede adierazpenetan eurretan be esentzia eta barruko zentzuna eta esangurea billatzea dogu gogoan, oraingo eta orduko texto eta adierazpenetan zer emoten dan itauntzea.

2. Mariari buruzko teologia eta fedea, eta batez be onerazpena, jakiña asko aldatu eta desarroillatu dana gizaldietan. Desarroillo guzti ori aaztu edo ukatu eta leenengo adierazpen labur neurritsuetara biurtuz soillik ez dogu beste barik gauzearen esentzia aurkituko. Neurri eratsu ori beti be erizpide oinarrizkoa dogu, fedea asmatu ez dogu egiten eta. Baiña gure fedulermentean geroko desarroilloak be badau bere egia eta esanaia, eta ez da osoan sastegira jaurtitzekoa. Mariaren onerazpena, bere muga neurritsuan, biozti ulertzea katolikotasunaren ezaugarria dogu: katolikotasuna, unibertsalidatea, ez geografikoa bakarrik,

egiaren eta gizonaren alderdiak kontuan euki gura dituna baiño (katolikotasun ori dei eta aalegiña da geiago, errealdadea baiño, istori.kontzientziak erakusten dauskunez).

3. Jaungoikoaren Ama, Jesusen Ama. Efeso'ko Kontzilioak Maria Birjiña Jaungoikoaren Ama zala baieztu ebanean, auzia Jesukristori buruzkoa zan, jakiña danez: «Jesus Jaungoikoa da», «gizon au Jaungoikoa da» esatea egokia dan ala ez. Kontzilio onen erabagia, Jesusen Absolutasuna zaintzeko, «Jesus Jaungoikoa da» esatea egoki eta bearrezko dala izan zan. Eta, beraz, Maria Jesusen ama danez, ildo berean, Jaungoikoaren ama dala esatea be egokia dala autortu zan. Jaungoikoaren ama, Jesus Jaungoiko danaren neurrian eta zentzuan. (Dent. 250-252). Baiña, gaur «Maria Jesusen Ama» bakarrik esango bagendu, uts-utsik be, gauza oso egokia esango geunke. Isteri azalpen guztiakaz be, gaur «Jaungoikoaren Ama» mito antzera ulertzeko arriskua andia da, ulertu be fedetik aldenduak, eta «fededunak». Onetan, badago beste arrisku bat: Arrazoiketa au: «Maria Jesusen Ama da; Jesus Jaungoikoa da; beraz, Maria Jaungoikoaren Ama da», logika fisiologikoz ulertzeko arriskua; eta duda barik olan ulertua izan da. Baiña teologi aldetik orrek ez leuke ezetariko garrantzirik izango: emen Joanen oarrak balio dau guztiz: «aragiak, ez dau ezetariko balio, nire berbak egi ta espiritu dira». Semearen kontra, seme baten destino ta mezuaren kontra legoken ama be, bere ama fisiologikoa litzateke, baiña ez leuke zer ikusirik seme orren benetako izate espiritualagaz. Maria, Jaungoikoaren ama dala-ta, gurtzen dogunean, jakiña ori esan gura ez dana. Eta ain zuzen be «amatasun» ori konkretoki zer dan, zelakoa dan, Mariaren beste izenetan edo «dogmatan» agertzen da. Izen oneek, ba, alderdi batetik, amatasuna zeazten dabe, eta, bestetik, amatasunaren desarroilloa dirala be esan lei.

Emen datza bear bada punturik beiñena. Fisiologi eraz ulertu ezkeru, naikerizko gauzak dirala, eta «pribilegioak» Ama Birjiñaren izenak pentsa leike. Baiña ez litzake orduan benetan «grazizko ama». Ebanjelioan, ostera, asikeratik azkenera (Kristoren misterioaren inguruan) Kristogaz bat egiñik agertzen da, Kristoren izate eta destinoagaz bat. Or ikusten dogu bere amata-

suna grazizko amatasuna dala: ez dago beregan dikotomiarik ama izatearen eta Jesusen jarraille izatearen artean. Zelan da Ama? Jesusen jarraille izanez. Zelan da Jesusen jarraille? Ama izanez. Abiapuntua eta bere izatearen erdi-erdia auxe dogu: Jesusen jarraille izatea bere amatasunean. Bat izate au ez da «gizazkoa» eta sikologikoa edo morala bakarrik (naiz ta «gizatasuna» eta izate «moral» ori, ondo ulertu ezkeru, naiko izan benetan: baiña emen euren csangura indargetuan ulertzen dira, orregaitik ez dira naiko Mariaren misterioa ulertzeko katolikotasunean).

Maria, beraz, bere osotasunean da ama: bere giza izate eta bere Jainkoaganako izatean: pentsa lei bear bada emen aurreragi goazela, arinigi, eta errazoirik gabe. Baiña bere Jaungoikoaganako izatean ama dala csateak ez dau besterik esan gura auxe baiña: bere giza izatean, bere askatasunean dala ama eta giza izate ori guztiz Jaungoikoaganakoa zala, eta Jaungoikoaganako izate onctan Kristoren ama izatea guztiz artzen ebala.

4. Osotasun ori, eta batera edo bestera agertzen da Ebajelioan. Orain, baiña, olan jarraitu bear dogu: «Osotasun» orrek aurrea artzen dauanez «sortzez garbia» dala diñogu. «Aurrea» artzez au baiña ez da naikeria eta kapritxoa Jaungoikoaren partez osotasunaren alderdia da; eta Maria Birjiña Jainko ontasunak guztiz inguratuta, artuta egoala esan nai dau. Aldiak emen oraingo errealdadearen sakontasuna eta osotasuna agertzen dau: oraingo Jainko-graziaren osotasunak leena be artzen, leenak be oraingo persona onen errealdadea eratzen dauanez: persona au bere osoan (bere leenaz) dago Jainko-graziaren barruan, eta grazi onek utsik egin gabe agertuko dau bere salbamen indarra: orra or Sortzez garbia.

Baiña onek ez dau Mariak parterik artzen ez dauanik esan nai, eta parte artu be, istorikoki, lurreko bizitza eran: beraz, illunean, naigabean, beste gizakiak lez Sortzez garbiaren graziak, «leenaren» graziak, ez dau oraingoaren askatasuna eta errespon-sabilidadadea kentzen, eta askatasun eta errespon-sabilidadadea lurkoi-istorikoa ain zuzen be. Oraingo graziak be errespon-sabilidadadea ori kendu ezceze geiagotu egiten dauan lez, edo Kristoren Seme

izateak bere lurkoitasuna kentzen ez deutsan lez, era berean Mariaren «sortzez garbiko» graziak be ez dau oraiñaren neke eta askatasuna kentzen. Ez dogu leenetik asi ta oraingoa zelangoa dan itandu bear, bestera baiño: oraiñetik asi eta zentzun onetan leena barruan artu.

5. Bere bizitzako oraiñak (Ebanjelio inguruko bizitzak) «geroa» be artzen dau barruan, edo criotz ondoko edo lurreko bizitza ondorengo errealidadea be artzen dau barruan, eta au «jazokundea» esaten dogu, Maria Birjiña «gorputz eta arima» zerruan artua izan zala: «gorputz eta arima», bere izate oso-osoan, Kristori lotuta dagoala, aintzazko bizitza ez dala lurrekoa baiño gitxiago Kristoren loturean eta ondorioetan; orain ez dagoala erdizka, eta amatasun grazian gitxiagotuta: amatasun orrick osorik jarraitzen dauala bai bere partez, bai Jaungoikoaren graziaren partez (alderdi biak, jakiña, baten alkartzen diralarik). Egia da «gorputzez» dagoala esatean sarritan edo normalean «gorputz» ori oso literalki ulertu dala. Baiña au arazo benetan bigarren edo irugarren maillakoa da, eta ia ez da arazorik be, leenengoaren aurrean: leenengoa betiko bizitza dogu, eta betiko bizitzan Maria bere osotasunean, lurrean Kristoren inguruan eban osotasunean loratu eta betikotu dala: eta ain zuzen be azkenengo au siñesten dogu Mariaren amatasun egian oiñarriturik: Kristok ezin leikelako ukatu ama-arimaz bere destinoa eta orretan Aitaren grazia artu eta zintzotasun guztiaz banandu dauana. Kristoren gizazko Seme izateak betiko irauten dauan lez, olan Mariaren grazizko amatasunak (ez aaztu au ez dala logika biologikoa: ebanjelio graziaren logika baiño, logika gizatiarra be ba da, edo ez da gizatiarra baiño gitxiago).

6. Maria beti Birjiña: giza indartez sorturikoa ez dela Kristo, Jaungoikaoren aparteko indartez edo eragiñez baiño, eta orrela aparteko eraz Jaungoikoaren Semea dala. Egi onen erdi-erdia be Kristologikoa da: Jesusen Jaungoiko-Semea izatea da auzia, «Goigoikoaren semea». Kreaziño barria jazoten da emen, orregaitik birjintasunean jaioa: ez dauka onek gure geroko ardurata esangurarik oindiño, alderdi onetatik.

Baiña, gero, Kristo sortu ta agertu danean, orduan bai

agertzen da Ebanjelioan erreñuaren aldeko birjintasuna: Kristo bera eta bere deia eta Paulorena. Beraz, Ama Birjinaren geroko birjintasunak bere amatasuna Kristogan, onen destinoan, onen ondorioan biltzen dala esan gura: beraz, bere birjintasuna amatasunaren zerbitzuan jarten da: Kristoren misterioaren zerbitzuan: amatasun orri emona, guztiz ama, eta beraz or «agortzen» dana.

7. Bitartekotasuna. Amatasuna bera dogu, eta pausorik aurrera emon barik; gogoan dogun amatasuna biologico-ontologikoa bakarra ez denez, guztiz dinamikoa baiño, grazizko eta ontasunezko amatasuna, bere esentziakoa dau bitartekotasunaz esan gura dan erralidatea: Kristoren anai guztiak, Eliza, giza-dia, bere ama-ardura eta ontasunaren barruan artzen dituala: ontasun-amatasun ori Jaunaren ontasunaren partizipazioa da; ontasunak berea dau ain zuzen be besteentzat ontasun izatea: emen Jaungoikoaren ontasunaren agerpide izatea: Mariarena Kristogaz, bere destinoagaz loturiko ontasun apartekoa dogu: amatasun-ontasuna dirixoguna.

8. Maria gure ama izatea bere Jesusen ama izatetik eta gu Jesusen anai izatetik dator. Guzti onetan Jesus dago erdian eta asikeran: Mariaren amatasuna Jesusen «Goi-goikoaren» seme izatetik dator, eta gure ama izatea, geu Jesusen anai izatetik. Ez Jesusen anaiak, Mariaren semeak garalako, bestera baiño: Mariaren semeak, Jesusen anaiak garalako.


Jaunaren «mirabea» dala esatean, ez diño egia ez litzaken apalkei beegirik, jakiña. Bere benetako eta sakonetako izakera eta sentipena agertzen da or, eta izakera ontologiko eta espirituala: gizakia Jaungoikoaren aurrean, ezereza Danaren aurrean.

Guretzat, beraz, «ama» eta «arrebea» batera: ama Kristoren anaienganako emonkortasunean; «arrebea», Jaungoikoaren aurrean, beste gizaki guztiak, lez artu egiten daualako.

Berea lurreko amatasuna baiño geiago da, grazizko ontasunezko amatasuna denez. Ontasuna da, Kristoren amatasunaren forma dauala (eta mirebetasun, umildade, esker on ontzana).

Maria beti Birjiña Kristoren misterioarearen barruan, bere lekuan eta bere esangurean jarri ta ikustea, ez da bera gitxiago maitatzea edo inondik be gitxiagotzea; bestera da guztiz: bere ontasuna Jaungoikoagandik eta Kristogandik datorkionez, bere maitagarritasuna be ortxe dago, ain zuzen be amatasun-mirabetasunean (batera).

Luis Arostegi



ESTUDIO
FOTOGRAFICO

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14
Urrut: 673 0509

AMOREBIETA

Trañabarren-Bloque, 1-4-13
Matieta - Abadiano